

# Ikerlariantzako gida

Ezagutza transferitzeko proiektuak

euskoiker



# Sarrera

Gida hau ezagutza transferitzeko proiektuak zertan dautzan azkar-azkar azaltzeko diseinatuta dago.

Euskoiker Fundazioa diru-irabazi asmorik gabeko entitate bat da, eta Euskal Herriko Unibertsitateak gizarteari ezagutza transferitzea sustatzeko funtzioa du. Unibertsitatetik kanpoko entitateekin (enpresak, erakundeak, elkarteak, partikularrak, etab.) proiektuak egin nahi dituzten EHUko irakasleekin eta ikertzaileekin egiten du lan soilik.

Gida honen helburua da ezagutza transferitzeko proiektuetan parte hartzeak zer **onura akademiko eta ekonomiko** dituen ezagutzera animatzea. Informazioa lau ataletan banatuta dago:

**1. Oinarrizko informazioa:** transferentzia-proiektuei buruzko galderarik ohikoenei erantzuten die (zer dira?, nork har dezake parte?...).

**2. Onurak ikertzaileentzat:** era honetako proiektuetan parte hartzeak zer onura akademiko eta ekonomiko dituen azaltzen du.


**3. Transferentzia-proiektuen adibideak:** EHUko zure kideek egin dituzten edo egiten ari diren egiazko proiektuak azaltzen ditu

**4. Administrazio-izapideak:** transferentzia-proiektu bat izapidetzeko prozesua xehatzen du.

EHUko

# 5727

irakaslek eta ikerlarik har dezakete parte ezagutza transferitzeko ekintzetan



# Aurkibidea

|                                                                                            |    |
|--------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| <b>Sarrera</b> .....                                                                       | 02 |
| <b>Aurkibidea</b> .....                                                                    | 04 |
| <b>Oinarrizko informazioa</b> .....                                                        | 06 |
| Zer da ezagutza transferitzeko proiektua?.....                                             | 07 |
| Nork har dezake parte?.....                                                                | 07 |
| Zer transferentzia-proiektu daude?.....                                                    | 07 |
| Nola egiten da ezagutza transferitzeko proiektu bat?.....                                  | 07 |
| Ezagutza transferitzeko kontratuak izapidetzeko modu bat baino gehiago daude?.....         | 07 |
| Zein da Euskoiker Fundazioaren balio-proposamena?.....                                     | 08 |
| Zer gastu mota egin daitezke ezagutza transferitzeko proiektu baten funtsekin?.....        | 08 |
| Proiektuak kanpoko erakundeari fakturatutako funtsen % 100 erabili ahal izango al du?..... | 08 |
| <b>Onurak</b> .....                                                                        | 10 |
| Onura ekonomikoak.....                                                                     | 11 |
| Onura akademikoak.....                                                                     | 12 |
| <b>Adibideak</b> .....                                                                     | 14 |
| Segurtasun-txostenen ebaluazioa.....                                                       | 15 |

|                                                                            |           |
|----------------------------------------------------------------------------|-----------|
| Formula Student Bizkaia.....                                               | 15        |
| Room4Steel, Enpresa Gela berria.....                                       | 15        |
| Jakintza dibulgazio zientifiko moduan transferitzea.....                   | 16        |
| Ikuspegi, Inmigrazioaren Euskal Behatokia.....                             | 17        |
| Trasferentzia-proiektuak Arkitekturan.....                                 | 17        |
| Sareak, omenaldi bat euskal saregileei.....                                | 18        |
| Esparru kriminologikoan ukiezinak/eztabaidaezinak ebaluatzen.....          | 19        |
| Arte Ederretako Fakultateko proiektu motak.....                            | 19        |
| Asmoz Fundazioa, online ikastaroak profesionalentzat.....                  | 20        |
| Korrikalarien errendimendua aurreikusten duten web-aplikazioak.....        | 20        |
| Desfibriladore adimentsuagoak.....                                         | 21        |
| Zinemaren kultura hedatzen.....                                            | 21        |
| Adituaren txostenak: ezagutzaren transferentzia esparru juridikoan.....    | 22        |
| Polizia hurbilago bat Bilborako.....                                       | 23        |
| Sentsore berrien prototipoa psikiatrian aplikatzeko.....                   | 23        |
| Mezuak hormatik .....                                                      | 24        |
| Galdutako mendizaleak topatzea mugikorraren bidez.....                     | 25        |
| Ondarearen informazio geometrikoa gordetzea.....                           | 25        |
| Gure ibaietako bioaniztasuna zaintzen.....                                 | 26        |
| Ikastetxe baten berregituraketa osoa.....                                  | 27        |
| Arrolako Kastroko hego-atearen berreraikuntza.....                         | 27        |
| Jende guztia-erentzako arte gotikoa.....                                   | 28        |
| Itsasorratz magnetiko zehatzagoak itsasontzientzat.....                    | 28        |
| <b>Administrazio-izapideak.....</b>                                        | <b>30</b> |
| ESKAINTZEN izapidetzea.....                                                | 31        |
| KONTRATUEN izapidetzea.....                                                | 31        |
| ADOSTASUN-dokumentua.....                                                  | 31        |
| Aurrekontuaren banakapena.....                                             | 31        |
| Kudeaketa-gastuak.....                                                     | 32        |
| Lehiaketa publikoak, diru-laguntzak eta beste ikerketa-deialdi batzuk..... | 34        |
| Sinadura elektronikoa.....                                                 | 34        |
| Fakturazioa eta ordainketak.....                                           | 34        |
| <b>Kontaktua.....</b>                                                      | <b>36</b> |
| Kontratazio-saila.....                                                     | 36        |
| Administrazio-saila.....                                                   | 36        |

# Oinarrizko informazioa

Ikertzaile gehienek transferentzia-proiektuen inguruan dituzten oinarrizko galderai erantzuten diegu.

## Zer da?

Ezagutza transferitzeko proiektuak kontratuak dira, non kanpoko erakunde batek (enpresa, erakundea, partikularra, etab.) EHUko langileei zerbitzuak eskatzen dizkien.

## Nork egin dezake?

Lanaldi osoan dabiltzan irakasleek eta ikertzaileek, baldin eta Jardun Akademikoaren Planean ikerketarako tarte erreserbatuta badute (irakasle ondokoak, agregatuak, osokoak, titularrak, katedradunak...).

## Zer proiektu mota daude?

Txostenak, azterlanak edo ikerketak, aholkularitzak, prestakuntza-ikastaroak, adituaren txostenak, lehiaketa publikoak, ikerketa-deialdiak, diru-laguntzak, ekitaldien antolaketa, mintegiak, biltzarrak, erakusketen komisariotza eta abar.

## Nola egiten da?

Irakasle parte-hartzaileak harremanetan jartzen dira premia duen erakundearekin, informazioa helarazten digute eta gu hitzarmena gauzatzeko beharrezko izapideez arduratzen gara.

## Zer gastu mota egin daitezke?

Proiektuen dirua zenbait gastu ordaintzeko erabil daiteke, hala nola ekipamenduak erostea, bidaiak eta dietak, kanpoko zerbitzuen ordainketak, hezkuntza-lankidetzak, lan-kontratazioa... Era berean, parte-hartzaileen ordainsarian osagarri ekonomikoak ordaintzeko ere erabil daiteke.

EHUko

# 1107

irakaslek eta ikerlariek hartu dute parte Euskoiker Fundazioarekin ezagutza transferitzeko proiektuetan azken 10 urteotan.

## Zer da ezagutza transferitzeko proiektu bat?

Kontratu horren bidez, EHUko irakasle batek edo gehiagok gizarteko kanpoko eragile bati zerbitzua (aholkularitza, ikerketa, kontsultoria...) emateko konpromisoa hartzen du edo dute bere/n gain. Kanpoko erakunde hori erakunde publikoa, enpresa, elkarte, jabekideen komunitatea, partikular bat edo gehiago... izan daiteke.

## Nork har dezake parte?

Bere JAPan (Jardun Akademikoaren Planean) ikerketara/transferentziara bideratzeko denbora esleituta duen eta lanaldi osoko kontratua duen EHUko edozein IIPk (Irakaskuntzako eta Ikerketako Pertsonala).

Hor sartzen dira, besteak beste, irakasle ondokoak, agregatuak, osokoak, titularrak, katedradunak, unibertsitateko laneko bitartekoak eta lanaldi osorako kontratatutako beste langile batzuk.

Horrez gain, EHUko taldearekin batera, honako hauek ere parte hartzea jasotzen du: ikasleak hezkuntza arloko lankidetzaren erregimenean, azpikontratutako enpresak, autonomoak, beste unibertsitate batzuetako laguntzaileak eta abar.

## Zer transferentzia-proiektu daude?

Era askotako kasuak daude, baina hauek dira proiektu mota ohikoenetako batzuk:

- ★ Txostenak, ebaluazioak, plangintzak eta antzekoak egitea.
- ★ Ad hoc ikerketak.
- ★ Aholkularitza teknikoko edo profesionaleko zerbitzuak esparru jakin (juridikoa, zientifikoa, medikoa...) batean.
- ★ I+G+b proiektuen ziurtagiriak.
- ★ Adituaren txostenak.
- ★ Prototipoak, diseinuak edo produktuak garatzea.
- ★ Ikastaroak eta prestakuntzako beste ekintza batzuk.
- ★ Ekitaldiak, kongresuak edo antzekoak antolatzea.
- ★ EHUko langileen gaitasunen edo ezagutzen bidez estal daitekeen kanpoko erakunde baten edozein beharra transferentzia-proiektu bihurtzeko.

## Nola egiten da ezagutza transferitzeko proiektu bat?

Proiektuaren arduraduna den irakaslea unibertsitateko ezagutza adituan interesa duen kanpoko eragilearekin harremanetan jarri eta zerbitzuaren parametroak adosten ditu, honako hauek barne: proiektuaren ezaugarriak, parte hartuko duen taldea eta beharrezko finantzaketa.

Ondoren, irakasle horrek Euskoiker Fundazioaren moduko izapidetze-erakunde batera jo eta proiektuaren ezaugarriak azaltzen dizkio. Gu arduratzen gara proiektuaren administrazio-kudeaketa osoa egiteaz, kanpoko erakundearekin harremanetan jartzen gara eta zerbitzuak eskaintzeko eskaintza edo kontratua idazten dugu. Akordio hori kanpoko erakundeak onartu eta alderdi guztiek sinatu beharko dute.

Era berean, kudeaketa-lan ekonomiko osoaz arduratzen gara, kanpoko erakundeari fakturatzeko, zenbatekoak kobratzeko eta finantzaketa hori proiektuaren helburuen esku jartzeko.

## Ezagutza transferitzeko kontratuak izapidetzeko modu bat baino gehiago daude?

Bi bide ofizial daude. Euskoiker Fundazioa arduratzen da kontratu horiek izapidetzeaz eta EHUko irakasleen eta enpresa edo erakundeen arteko kudeaketak bizkortzeaz. 1979an sortu zenetik ari gara lan hori egiten eta gure nagusiak dira EHU, hiru foru-aldundiak eta merkataritzako hiru ganberak (Bilbo, Gipuzkoa eta Araba).

Beste aukera bat izan ohi da EHUren IEEB (Ikerketaren Emaizak Eskualdatzeko Bulegoa) bidez izapidetzea.

Bi bideek legezko araudi bera aplikatzen dute eta kudeaketa-gastuen kostu berbera dute.



### **Zein da Euskoiker Fundazioaren balio-proposamena?**

Gure helburua zerbitzua ematea da eta, ahal den neurrian, kontratu horiei lotutako izapidetzeak arindu nahi ditugu EHUKo langileei aholkularitza emanda eta egin behar dituen kudeaketa-lanak ahalik eta gehien mugatuta. Gure ustez, ikertzailearen denborak, hain zuzen ere, bere lanpostuari dagozkion berezko funtzioetan eskaintzen du balio handiena. Horregatik, kudeaketarekin lotutako guztiaz arduratzen gara.

Gure balioak dira malgutasuna, bizkortasuna, eragingarritasuna, tratu-gertutasuna eta arazoak konpontzeko nahia.

### **Zer gastu mota egin daitezke ezagutza transferitzeko proiektu baten funtsekin?**

Proiektuaren funtsak, besteak beste, honako hauetarako erabil daitezke:

- ★ Proiektua garatzeko beharrezkoa den edozein material (inbentariagarria izan ala ez) erosteko.
- ★ Beharrezkoa den edozein kanpoko zerbitzu kontratatzeko (enpresei, autonomoei eta abar).
- ★ Proiektuko kideei dietak edo bidaia-gastuak ordaintzeko.
- ★ Proiektu horri atxikitako langileak kontratatzeko (lan-kontratua).
- ★ Barneratutako irakasleen lana ordaintzeko unibertsitateko nomina bidez egindako ordainketekin.

Proiektu bati egozten zaizkion gastu guztiak beharrezkoak izan behar dira proiektua garatzeko. Baldintza hori izan ezik, ez dago, adibidez, ikerketako beste proiektu batzuetan egon ohi den atal hermetikorik (inbentariagarria, langileak, suntsigarriak...). Proiektuaren dirua itundutako jarduera garatzeko egokitzat jotako eran bana daiteke.

Eskatutako edo esleitutako zenbatekoak justifikatzea eskatzen duen edozein deialdi espezifikoren eta/edo diru-laguntzen kasuan bakarrik egoten da malgutasuna mugatuta.

### **Proiektuak kanpoko erakundeari fakturatutako funtsen % 100 erabili ahal izango al du?**

Ez. Kanpoko proiektu guztien kasuan, EHUK berdin jarduten du: fakturatutako zenbatekoaren % 18 atxiki egiten da kudeaketa-gastuetarako. Honela banakatuta dago: % 5 EHUKo saileko ikertzaile nagusia, % 8 EHUKen zerbitzu orokorrak eta % 5 Euskoiker. Horrekin lotuta, gogoan izan behar da beren lanaldiaren zati bat (ikerketarekin eta kudeaketarekin lotutakoa) jarduera horiek egitera bideratzen duten EHUKo langileak direla.





# Onurak

Zer onura ditu transferentzia-proiektuetan parte hartzeak?

Zure lanak gizartean zuzenean eragiten duela ikusteak zure buruarekin pozik egotea ekartzeaz gain, ezagutza transferitzeko proiektuetan parte hartzeak beste onura batzuk ditu:

**Ekonomikoak** – Proiektuagatik sartzen den diruaren zati bat ordainsariaren osagarri gisa kobra daiteke. Kontuan izan unibertsitateak kudeaketa-gastuaren % 18 atxikitzen duela aurrekontu osoaren gain.

**Akademikoak** – Transferentzia-proiektuek modu batera edo bestera hartzen dira deialdiaren arabera (irakasleen akreditazioa, euskotramoak, transferentziaren seiurtekoa, etab.). Edonola ere, goranzko joera du, transferentziaren inguruan gero eta iritzi hobeagoa baitago karrera akademikoan.

EHUko

# 315

irakaslek hartu dute parte 2021ean transferentziarekin lotutako proiektuetan.

Transferentzia-proiektuetan parte hartzeak hainbat onura dakarzkio ikertzaileari. Zure lanak gizartearen eragin zuzenagoa duela ikusteak eragindako poza alde batera utzita, onurak ekonomikoak edo akademikoak izan daitezke:

### Onura ekonomikoak

Denok dakigun bezala, unibertsitatean irakasleen eta ikertzaileen lanaldi osoko kontratuek asteko lanaldia 37,5 ordukoa izatea dakarte. Irakaskuntzak eta tutoretzak, berriz, denbora-tarte txikiagoa betetzen dute. EHUn lanaldi osoan kontratatutako irakasleek eta ikertzaileek arduraldi eskusiboko klausula bat sinatzen diote unibertsitateari beren kontratuetan, eta beren lanaldiaren gainerako denbora ikerketa-jarduerei edo unibertsitate-kudeaketari eskaini behar diote.

**Irakasleak zenbait ikerketa-jarduera egiten has daitezke, besteak beste, ezagutza transferitzeko jarduerak.** Ezagutza transferitzeko jarduerak dira, esaterako, ikerketak, aholkularitzak eta laguntza teknikoak, adituaren txostenak, prestakuntza-ekintzak eta I+G+b ziurtagiriak.

Unibertsitateak kudeaketa-gastuei dagokien % 18 kendu ondoren, kanpoko proiektuen fakturazioa zenbait xedetarako erabil daiteke, ikertzaile nagusiaren proposamenaren arabera.

Xede horietako batzuk izan daitezke, besteak beste, ikerketarako beharrezko ekipamendua erostea, bidaiek edo dietek eragindako gastuak ordaintzea eta zenbait lan kanporatzea (enpresetara edo autonomoei) Hala ere, **proiektuen zenbateko ekonomikoa proiektuko ikertzaileen nominan ordainsari-osagarri gisa ere sar daitezke.**

Diru-sarrera horiei **zenbait muga** jartzen zaizkie, nominaren arabera. Lanaldi partzialeko lan-kontratua duten langileek ezingo dute kontzeptu horrengatik nominarekiko zenbateko osagarririk jaso; izan ere, ikerketara bideratutako haien dedikazioa beren lanen baitan dagoela ulertzen da. Langile autonomo gisa transferentzia-proiektu batean parte hartu ahal izango lukete, baina ez EHUKo langile gisa. Horren ondorioz, eskainitako zerbitzuengatik dagokion faktura igorri beharko lukete.

EHUK ezagutza transferitzeko proiektuekin lotuta nominan kobra dezaketen urteko gehieneko

zenbatekoak ditu ezarrita. Urtero berrikusten dira zenbateko zehatzak. Hala, 2021ean, kontratatutako proiektu guztiengatik nominan jaso beharreko gehieneko zenbateko gordina 127.127,00 €-koa izan da, eta proiektu bakar baten kontratuagatik jaso beharreko gehieneko zenbatekoa 15.713,00 €-koa. Zenbateko horren gainetik, EHUK atxikitzen du gehiegizko zenbatekoaren % 25. Irakasle batek, esate baterako, 30.000,00 € jaso nahi badu, benetan jasoko duen zenbatekoa honako hau izango da:  $15.713,00 + 0,75 \times (30.000,00 - 15.713,00) = 26.428,25 \text{ €}$ .

## Onura akademikoak

Zenbait unibertsitate-baremotan ikerketa-proiektuak balioetsi beharreko alderdietako bat dira, hala nola ordezkapen-poltsetan, ANECaren eta UNIBASQUen akreditazio-prozesuetan eta ordainsari-osagarriak esleitzeko barne-balorazioko sistemetan ("Euskotramos").

Merezimenduen zenbatespen zehatza faktore askoren arabera da, hala nola baremo orokorren aldi behingo berritzea (bi urtean behin gutxi gorabehera) eta batzorde zehatz bakoitzak deialdi jakin batean aplikatzea erabaki dituen berariazko irizpideak. Enpresekin egindako ikerketa-proiektuak balioetsi egiten direla eta aplikatzen den balioespen-irizpidea deialdi jakin batean parte hartzen duten guztientzat bera dela berma daiteke soilik. Ondoren, gida hau idatzitako zen unean (2019. urtearen amaiera) zeuden baremoen laburpena aurkeztuko dugu:

### Ordezkapen-poltzak

EHUK irakasleen ordezkapenak egiteko hautagaien poltsak ditu. Unibertsitatearen eta enpresaren arteko transferentzia-jarduerak 2. atalaren, "*Ikerketa-merezimenduak*" izenekoaren, barruan ebalua daiteke. Atal honetan gehienez lor daitekeen puntuazioa 20 puntukoa da (berariazko poltsak merezimendu horiei ardura handiagoa edo txikiagoa eman dakiekeen arren).

Kanpoko Erreferentziarik gabeko ikerketa-proiektuak beste modu batera balioesten dira berariazko ezagutza-arlo bakoitzean, baina gehienez hau esleia dakie:

- ★ Gehienez 0,37 puntu urtean, ikertzaile nagusi gisa ageriz gero.
- ★ Gehienez 0,25 puntu urtean irakasle kolaboratzaile gisa.

Kanpoko Erreferentzia duen ikerketa-proiektu bat da unibertsitatekoa ez den kanpoko kalitatearen erakunde ziurtagiri-emaileren batek ziurtatutakoa, hala nola ANECAk eta UNIBASQek (MINECOn proiektuak eta EHUrenak, esaterako). Eskuarki, enpresek kontratatutako proiektuek ez dute ziurtatze-prozesurik igarotzen. Horrenbestez, Kanpoko Erreferentzia gabekotzat jotzen dira.

## UNIBASQ ziurtagiria

Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak (UNIBASQ) ANECAn funtzio baliokideak ditu, baina euskal unibertsitate sistemarako. Agentziak figura hauentzako akreditazioak egiten ditu: irakasle osoa, irakasle agregatua, irakasle atxikia, unibertsitate pribatuko irakasle doktore, doktore-tituludun ikertzaileak eta Ikerketa-irakaslea..

Figura hauentzako baremo guztietan, "*Ikerketa-jarduerak eta ezagutza zabaltzea*" epigrafearen barruan balioesten dira ezagutza transferitzeko kontratuak. Zehazki, transferentzia-proiektuak azpiepigrafearen baitan balioesten dira: *Ikerkuntza eta ezagutza zabaltzeko taldeko jarduerak: proiektuak, kontratuak, eta ikerkuntza-taldeak eta sareak* (gehienez 15 puntu, xede duen figuraren arabera). Textu honen bidez aipatzen dira:

*Administrazio Publikoarekin edo enpresekin egindako ikerkuntza-kontratuak (horiek zientziaren arloan zer garrantzi duten eta horien zenbatekoa hartuko dira aintzat).*

Horrez gain, ohar hau gehitzen da ezagutza transferitzeko proiektuak balioesteko irizpideak argitzeko (garrantzia zientifikoa, kontratuaren zenbatekoa eta parte-hartze mota):

Balioespenean kontuan hartuko da hautagaiaren parte-hartze mota: ikertzaile nagusia, proiektuen edo azpiproiektuen koordinatzailea, ikertzailea, bekaduna, etabar.

**OHARRA:** *Balioespen-irizpideak aldatu ahal dira. Akreditazio-prozesuari buruzko informazio gehiago lor daiteke zuzenean UNIBASQ Agentziari (+34) 945 123 356 telefonora kontsultatuz edo webgunearen bidez: [www.unibasq.org](http://www.unibasq.org).*

### Autonomia-erkidegoko ordainsari osagarriak

EHUk aldi berean behin balioesten du bere irakasleen eta ikertzaileen jarduerak, ordainsari-osagarriak esleitzeko, lagunarteko hizkeran “Euskotramoak” izenekoak. Euskoikerrek izapidetzen dituen unibertsitatearen eta enpresen arteko transferentzia-jarduerak puntuak ematen dituzte, argitaratutako UNIBASQen azken baremoaren arabera, 1.2.1. Ezagutza transferentzia atalaren barruan (gehienez 10 puntu ematen zaizkio) eta are zehatzago epigrafe honetan:

*1.2.1.3.– Transferentzia, kanpoko baliabide ekonomikoak jasota. Funtsak UPV/EHUr itzultzen dituzten enpresa, erakunde eta administrazio publikoekin egindako ikerketa-arloko kontratu edo hitzarmenetan parte hartu izana, betiere unibertsitateak araututako ohiko sistemen bidez kontratatutakoak izanik. Eskatzaileak kontratu/hitzarmenean izan duen parte-hartze mota (ikertzaile nagusia, ikertzailea, prestakuntzan) kontuan izango da, haren iraupena, egindako transferentziaren kalitate-zantzuak, proiektuaren emaitzak, baita kontratu/hitzarmenak UPV/EHUn izan duen inpaktu ekonomikoa ere. Puntuazioa urteko puntu 1 izango da gehienez, parte hartzeagatik eta gehienez 2 puntu arduraduna bada.*

*1.2.1.4.– Gizartean eragin handia duen transferentzia. UPV/EHUK eta irabazi-asmorik gabeko erakunderen edo administrazio publikoren batek gizartean eragin handia duten jarduerak garatzeko sinatutako kontratu edo hitzarmenetan parte hartu izana. Eskatzaileak kontratu/hitzarmenean izan duen parte-hartze mota (ikertzaile nagusia, ikertzailea, prestakuntzan) kontuan izango da, haren iraupena, egindako transferentziaren kalitate-zantzuak, proiektuaren emaitzak, baita kontratu/hitzarmenak gizartean izan duen inpaktua ere. Puntuazioa urteko puntu 1 izango da gehienez, parte hartzeagatik eta gehienez 2 puntu pertsona arduraduna bada.*

### Ikerketa-seiurtekoak eta transferentziakoak

Ikerketako seiurtekoak ez dituzte transferentzia-jarduerak baloratzen, baizik eta artikuluko aldizkari indexatuetan argitaratzea. 2019ko deialdian transferentziaren seiurtekoa sartu zen.

Hasieran, plan pilotu bat izan zen, eta transferentziako seiurtekoaren tarte bakarra (6 urte) eskatzeko aukera ematen zuen, ikerketako seiurtekoetarako ebaluatutako urteak barne. Ebaluazioa lau bloketan egin zen, eta horietatik gutxienez bitan aurkeztu behar dira ekarpenak.

Gaur egun, 2022an, seiurteko hau Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren mende dago, eta bere azken forma Zientzia Lege berrian zehaztuko da.

# Adibideak


## EHUn egindako Ezagutza Transferitzeko Proiektuen adibideak

Azken urteetan, gure webgunean zenbait esparrutan (Arkitektura, Ingeniaritza, Arte Ederrak, Zinema, Soziologia, Kriminologia, Biologia, Enpresaritza, Nautika...) egindako ezagutza transferitzeko proiektuen dozenaka adibide argitaratu ditugu. Proiektuen laburpen bat duzue ondoko orrialdeetan, artikuluen eduki osorako estekekin batera.

# 460

transferentzia-proiektu  
2021an. Gainera, 2022ko  
lehen hiru hiruhilekoetan  
dagoeneko 210 egin ditugu.





### Segurtasun-txostenen ebaluazioa

Gure inguruan enpresa batzuek substantzia arriskutsuekin egiten dute lan. EHUKo irakasleek ebaluatzen dituzte enpresa horiek substantziak biltegiratu eta haiekin lan egin ahal izateko aurkeztu behar dituzten txostenak, eta, hala, Euskadiko enpresen ehundurari adituen ezagutza eskaintze diote.

[Gehiago jakiteko...](#)

### Formula Student Bizkaia

Irakaskuntzaren berrikuntza arloko proiektu handi bat da Formula Student Bizkaia, learning by doing metodologia muturrera eramaten duena, eta urtero Bilboko Ingeniaritza Eskolako 60 ikasle jasotzen dituena. Urtero, lasterketetarako auto bat diseinatzeko, eraikitzen, optimizatzen eta gidatzen dute talde horretako kideek, beste unibertsitate batzuetako Formula Studenteko taldeen aurka lehiatzeko.

[Gehiago jakiteko...](#)







### **Room4Steel, Enpresa Gela berria**

2021-2022 ikasturtean Enpresa Gela berri bat inauguratuko du Bilboko Ingeniaritza Eskolak, siderurgia-sektoreari buruzkoa, zentro honetan martxan jarriko den hamargarrena. Newsletterren ale honetan gelaren arduradunak elkarrizketatu ditugu, eta enpresaren eta unibertsitatearen arteko lankidetzarako bide interesgarri honen funtzionamenduaren gaineko galderei erantzun diegu.

[Gehiago jakiteko...](#)



### **Jakintza dibulgazio zientifiko moduan transferitzea**

Jakintza transferitzeko proiektuek dibulgazio zientifikoa ere balia dezakete. Hedabideekin edo argitaletxeekin egindako lankidetzak horiek gizarte osoan eragiten dute ondoren. Newsletterren ale honetan, bi dibulgatzaileekin hitz egin dugu: Alex Fernández Muerza eta Juan Ignacio Pérez Iglesias. Haiekin izaniko elkarrizketan, zientziaren dibulgazioak oro har izan behar duen eginkizunaz mintzatu gara, baita hurrengo hamarkadan gizarteari interesatuko zaizkion gaiez eta dibulgazio-jarduera propioak pertsonalki egiten dien ekarpenaz ere.

[Gehiago jakiteko...](#)



### **Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia**

Zenbat etorkin daude Euskal Autonomia Erkidegoan? Zer herrialdeetatik etorri dira? Immigrazioarekin lotutako transferentzia-proiektuetan elkarrekin lan egiten duten proiektuei bazkide tutako irakasleen eta ikertzaileen talde bat da Ikuspegi. Ikerketa, hedapena eta aholkularitza nahasten dira behatokiaren jardueran. Buletinaren ale honetan, zuzendariak, Gorka Morenok, Ikuspegik nola funtzionatzen duen eta zer funtzio duen azaltzen digu.

[Gehiago jakiteko...](#)



### **Trasferentzia-proiektuak Arkitekturan**

EHUren Arkitektura Goi Eskola Teknikoan, Donostian, jarriko dugu ardatza. Eskolak hainbat transferentzia-proiektu ditu martxan energia-eraginkortasunaren, ondarearen, teknologia berrien eta egurrezko egituren esparruan, besteak beste. Alor horiekin lotuta egindako transferentzia-proiektuak azalduko dizkizuegu.

[Gehiago jakiteko...](#)





### **Sareak, omenaldi bat euskal saregileei**

Dantza garaikideko lan bat ezagutzera gonbidatzen zaitugu. Euskal saregileen emozio-, soinu-, adierazpen-unibertsora eramango zaitu, bai eta haien aldarrikapen-unibertsora ere. Natalia Monge irakaslea, EHUKo Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika departamendukoa, du zuzendari, eta bere lana unibertsitateak eta gizarteak ezagutzaren transferentzia-proiektuen bidez lotzeko duten modu ugarietako bat da

[Gehiago jakiteko...](#)





### Esparru kriminologikoan ukiezinak ebaluatzen

Gemma Varonak, Kriminologiaren Euskal Institutuko kideak, errestaurazioko justiziarekin edo elkarbizitza sozialarekin lotutako hainbat proiektu ikertu du: Adiorik Gabe, Gakoa eta Elkarlan Zuzenbideko Euskadiko Elkarateak egindako lana.

Gehiago jakiteko...

### Arte Ederretako Fakultateko proiektu motak

Arte Ederren Fakultatean egiten ari diren ezagutza transferitzeko proiektu motak begiratu azkar batean aztertuko ditugu.

Gehiago jakiteko...





### **I+G+b egitasmoak egiaztatzen dituzten adituak behar dira**

Ezagutzaren transferentziarekin lotutako jardueraren bat egin nahi duzu, baina ez dakizu nondik hasi? I+G+b enpresa ziurtatzaileak etengabe ari dira area espezifikotako adituak bilatzen, eta haien datu-baseetan sartzea modu erakargarria izan daiteke mota horretako lanak egiten hasteko. Kontatuko dizugu nola funtzionatzen duen.

Gehiago jakiteko...

### **Korrikalarien errendimendua aurreikusten duten web-aplikazioak**

EHUko diziiplina anitzetako irakasle talde batek, Grupo Campus enpresarekin lankidetzan, odol-analisirik egin gabe korrikalari baten laktato-atalasea zehaztasunez aurreikusteko sistema bat garatzen ari da.

Gehiago jakiteko...




### Desfibriladore adimentsuagoak

EHUko ikerketa-talde batek Osatu enpresarekin batera lan egin du, kanpoko desfibriladore automatiko bat garatzeko. Desfibriladore horrek modu sinplean monitorizatzen du ea bizkortze-maniobra egiten ari den pertsona modu egokian ari den egiten konpresio torazikoak.

Gehiago jakiteko...







### Adituaren txostenak: ezagutzaren transferentzia esparru juridikoan

Abokatuek, askotan, adituengana jotzen dute adituen txostenak igortzeko. Unibertsitateko irakasleak oso preziatuak izaten dira aditu gisa haien ezagutza, sinesgarritasuna eta gaitasun didaktikoa direla eta. Halakoak egin izan dituzten irakasleen eskutik ezagutza transferitzeko lan mota horien inguruan jakin behar duzuen guztia kontatuko dizuegu: Zer motatako adituaren txostenak daude? Zer baldintza bete behar ditu aditu edo peritu batek? Zer espero izaten da peritu batengandik? Zer onura ditu aditu-txostenak egiteak?

Gehiago jakiteko...

### Zinemaren kultura hedatzen

Iratxe Fresneda EHUko irakasle eta ikertzaile bat da, eta denbora asko eskaintzen dio zinemaren kultura gizartearen sektore zabaletara hedatzeari (hedapena).

Gehiago jakiteko...





### Polizia hurbilago bat Bilborako

EHUko ikertzaileek Bilboko udaltzaingoarekin batera lan egiten dute gertuko poliziaren eredua garatzeko: oinez eta bakarrik auzoetan patruilatzen duten agenteak. Urteak dira Londresen sistema hori ezarrita dagoela.

[Gehiago jakiteko...](#)



### Sentsore berrien prototipoak psikiatrian aplikatzeko

EHUko talde batek Burmuin Institutuarekin batera lan egiten du bihotz-erritmoa eta azalaren erantzun galbanikoa erregistratzeko gai den eskumuturreko baten prototipoa egiten. Zenbait erlaxatze-ariketetan gaixoen aurrerapena neurtzeko erabiliko da gailua.

[Gehiago jakiteko...](#)





## Mezuak hormatik

Arte Ederren Fakultateko irakasle bat 1886-1975 aldian publizitateko kartelen erakusketarako komisarioa izan da Bilboko Arte Ederren Museoan. Erakusketa 225 karteaz osatuta dago, eta jada 50.000 pertsonak baino gehiagok bisitatu dute.

Gehiago jakiteko...





### Galdutako mendizaleak topatzea mugikorraren bidez


Mugikorretako seinalearen bidez, galdutako mendizaleak lokalizatzeko aukera eskaintzen duen teknologia garatu dute, dauden lekuan estaldura duten ala ez kontuan hartu gabe. EHUko zenbait irakaslek hartu dute parte teknologia horren garapenean.

[Gehiago jakiteko...](#)

### Ondarearen informazio geometrikoa gordetzea

Ondarearen Dokumentazio Geometrikoaren Laborategia informazio geometrikoa dokumentatzeko era guztietako ondare-elementuen 3D ereduak egiten ditu. Probatu gure lanetakoren bat ikusten.

[Gehiago jakiteko...](#)







### Gure ibaietako bioaniztasuna zaintzen

EHUko ikerlarien talde batek gure ibaietako arrain-populazioak ikertzen ditu arrantzarako kupoak eta debekualdiak ezartzen dituzten administrazioei aholkularitza eskaintzeko. Hori egiteko modua azalduko dizugu.

[Gehiago jakiteko...](#)





### **Ikastetxe baten berregituraketa osoa**

Virgen del Remedio ikastetxeak (Alcorcón) berregituraketa-proiektua jarri du martxan. Proiektuak 4 fase ditu eta EHUKo Enpresa Antolaketa Saileko irakasle den María Begoña Peña Langen aholkularitza izan dute.

[Gehiago jakiteko...](#)

### **Arrolako Kastroko hego-atearen berreraikuntza**

Zenbait urtetan, EHUKo hainbat irakasle eta ikaslek hartu dute parte Arrolako Kastroaren hego-atea zaharberritzen eta hari balioa ematen. Burdin Aroko kokalekua da eta Bizkaiko lurralde historikoan dago, Nabarniz, Arrazua eta Mendata artean. Fernando Bazetak, proiektuko ikerlari nagusiak, lanaren filosofia zein den kontatu digu.

[Gehiago jakiteko...](#)





### Jende guztiarentzako arte gotikoa

EHUko Artearen Historiako departamentuko Francisca Vives irakasleak arte gotikoari buruzko ikastaro bat antolatu du oro har herritar guztiei eskainia. Bokazio-prestakuntza ere ezagutza transferentziazko jarduera bilaka daiteke. Era askotako prestakuntza-ekintzak har daitezke transferentzia-proiektu gisa, eta hori adibide zehatz bat baino ez da.

Gehiago jakiteko...


### Itsasorratz magnetiko zehatzagoak itsasontzientzat

EHUko bi irakasle itsasontzien orratz magnetikoak doitzeko modua goitik behera aldatu nahian dabiltza, ontzia nabigatzen ari den bitartean gailuen desbideratzea detektatzen duen sistema baten bidez. Itsasontzi-konpainiek denbora eta diru dezente aurreztuko dute sistema horren bidez, alferrikako maniobrak saihesten baititu.


Gehiago jakiteko...



Azken 10 urteotan Euskoiker Fundazioarekin transferentzia-proiektuak egin dituzten irakasleen/ ikerlarien kopuruaren bilakaera.



Euskoiker bidez urte bakoitzean egindako ezagutza transferitzeko ekintza kopurua.





# Administrazio-izapideak

Ezagutza transferitzeko proiektuek berekin dakartzaten izapideei buruzko azalpen sakona.

Hau da atal honen laburpen operatiboa: “deitu, esan zer egin nahi duzun eta gu arduratuko gara guztiaz”. **EHUko ikertzaileei ahalik eta gehien erraztu nahi dizkiegu administrazio-izapideak.** Zure ordezt egin dezakegun edozein izapide egiten dugu (kanpoko erakundearekin harremanetan jartzea, kontratuak idaztea, sinadura kudeatzea, fakturatzea, kobratzeari jarraipena egitea...). Hala, liberatu egingo zaitugu, zure denbora proiektuko alderdi teknikoak konpontzeari eskaintzeko.

Euskoikerren zure ordezt zer administrazio-prozesu egiten dugun eta izapidetze mota bakoitzean zer esparru legaletan mugitzen garen jakiteko jakin-mina baduzu, orain hobeto azalduko dizugu.

Atal honetako azalpenetan, **eskaintzak** eta **kontratuak** zer diren deskribatzen da, bakoitzaren administrazio-prozesuarekin batera. Halaber, maizen erabiltzen diren dokumentuak deskribatzen dira, hala nola **adostasun-dokumentua** eta **aurrekontuaren banakatzea**. Bukatzeko, **Euskoikerrek** lehiaketekin, diru-

laguntzekin eta beste deialdi mota batzuekin lotuta zer **lizitazio-gaitasun** duen azaltzen da.


Horrez gain, ezagutza transferitzeko proiektu batekin lotutako **kudeaketa-gastuak** zehazten dira, eta **fakturen ordainketari, likidazioei eta dietei eta kolaboratzaileei egin beharreko ordainketei** buruzko informazioa eskaintzen da.

Atalaren amaieran, **sinadura elektronikoari** buruzko ohar bat eta **gure harremanetarako datuak** ematen ditugu.

Euskoiker Fundazioko  
erabiltzaileen

# 83%

pozik edo oso pozik dago  
jasotako zerbitzuarekin.

**Kanpoko eragileak****Beharra****EHUko langileak**


Kanpoko erakunde batek (nazionalak edo atzerrikoak), enpresa, erakunde, elkarte, beste edozein unibertsitate nahiz partikular batek, premiak baditu eta EHUren ezagutzen, abilezia teknikoen edo azpiegituren bidez konpon badaitezke, prozesua abiatzen da.

EHUko irakasleak gurekin harremanetan jarriko dira eta informazio hau eskatuko diegu, izapideak hasteko:

- ★ Proiektuaren/lanaren/ikastaroaren izenburua.
- ★ Enpresaren datuak.
- ★ Harremanetarako pertsona (izena, helbide elektronikoa eta telefonoa).
- ★ Proiektuaren memoria/ lanen deskribapena.
- ★ Proiektuaren/lanaren iraupena.
- ★ EHUko zer langilek hartuko duten parte.
- ★ Parte hartzen duten EHUtik kanpoko langileak (autonomoak, ikasleak hezkuntza-lankidetzan edo azpikontrataturako enpresak).
- ★ Aurrekontua.

Prestakuntza baldin bada, ikastaroaren gaitegia, iraupena, ordutegia eta datak eskatuko dira, memoriaren eta proiektuaren iraupenaren orde. Gainontzean, beste edozein proiekturekin bezala egingo da, aurrekontuak kalkulatzeko garaian, prestakuntzak BEZ salbuetsita duela kontuan izan behar dela salbu.

Informazio hori jasotakoan, bitartekari-lanak egiten ditugu kanpoko erakundearekin administrazio-izapideen xedeetarako. Horretarako, beharrezko lanak egiten ditugu, hitzarmenak legezko forma egokia izan dezan.

**EHUko langileak****Euskoiker Fundazioa****Kanpoko eragileak**

**Euskoiker****Kanpoko eragilea**

Enpresa

Erakundea

Partikularra

Lan motaren arabera, enpresa pribatu batekin den edo erakunde publiko batekin, eta batez ere, aurrekontuaren zenbatekoaren arabera, izapidetzea eskaintza bidez egiten da, zenbatekoa 9.000 € + BEZ baino gutxiagokoa bada, edo kontratu bidez, zenbatekoa 9.000 € + BEZ baino handiagoa bada.

**ESKAITZEN izapidetzea**

Eskaintza enpresari/erakundeari bi aletan bidaliko diogu, ale bat sinatuta eta zigilatuta bidal dezaten, beren onespena adieraziz.

Era berean, ikerketa-taldearen adostasun-dokumentua izapidetuko dugu.

Enpresaren/erakundearen onespena lortu ondoren, azken urratsa da Fundazioaren eta ikertzaile nagusiaren arteko kontratua idaztea. Kanpoko erakundeari igorritako eskaintzaren kopia atxikitzen zaio kontratuari.

**KONTRATUEN izapidetzea**

Zirriborroa idatzi eta ikertzaile nagusiari helaraziko diogu posta elektronikoz, berrikusi eta bere oniritzia eman dezan.

Ikertzaile nagusiak bere onespena adierazi ondoren, kanpoko erakundeari bidaliko diogu posta elektronikoz, berrikusi eta onar dezan edo egokitzen jotzen dituen aldaketak egin ditzan.

Kanpoko erakundearen adostasuna lortu ondoren, sinadura-prozesua abiatuko dugu.

**ADOSTASUN-dokumentua**

Dokumentu honetan, proiektuari dagozkion datuak zehazten dira (izenburua, enpresa, iraupena eta abar) eta proiektuan parte hartuko duten EHUKo langileen datuak.

- ★ Izena eta bi abizen.
- ★ NAN-zenbakia.
- ★ Zer departamentukoak diren.
- ★ Parte-hartzaile bakoitzak proiektua/lan gauatzeko gutxi gorabehera zenbat ordu beharko dituen.
- ★ Ordainsarietarako jaso beharreko zenbatekoa (kudeaketa-gastuak eta BEZ, aplikagarria bada, deskontatuz).
- ★ Fakturazioa.

Parte-hartzaile guztiek eta departamenduko zuzendariak edo zuzendariak, baldin eta departamendu bat baino gehiagoko langileek parte hartzen badute, sinatu behar dute dokumentu hori. Proiektua/lan gauatzeko gutxi gorabehera zenbat ordu beharko diren adierazteko eremuak derrigorrez bete beharko dira, bai eta ordainsarietarako jaso beharreko zenbatekoari buruzkoak ere.



### Aurrekontuaren banakapena

Proiektu/lan baten aurrekontua partida hauetan banaka daiteke: EHUKo langileak, EHUKoak ez diren langileak (autonomoak), kontratatutako langileak (lan-kontratua Euskoikerren bidez), inbentariagarria, bidaiak eta dietak, material suntsikorra, kanpoko zerbitzuak (enpresa azpikontratatuak) eta beste batzuk.

EHUKoak ez diren langileentzako (autonomoak) eta Kanpoko Enpresentzako (enpresa azpikontratatuak) partidek ezin dute aurrekontu osoaren % 50 baino handiagoak izan. Nahitaezkoa balitz % 50 baino handiagoa izatea, arrazoiak azaltzeko idatzi bat atxiki beharko da, proiektuaren/lanaren arduradunak behar den bezala sinatuta.

### Kudeaketa-gastuak

2008ko uztailaren 1ean indarrean jarri zen araudiarekin bat, kudeaketa-gastuak % 18 dira. Beraz, haxe izango litzateke banakapena:

- ★ % 5 Proiektuaren ikerlari nagusiaren EHUKo sailari ematen zaio.
- ★ % 8 EHUKo zerbitzu orokorrek jasotzen dute.
- ★ Gainerako % 5 Euskoiker Fundazioak jasotzen du.

### Lehiaketa publikoak, diru-laguntzak eta beste ikerketa-deialdi batzuk:

Euskoiker Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen (ZTBES) Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Agentea da, eta "Eskaera/Eskaintzaren Bitartekaritzarako Agente" gisa sailkatuta. Horri esker, EHUKo irakasleak ikerketa-deialdi gehienetara aurkez daitezke Fundazioaren bidez. Hauek dira deialdi batzuk, besteak beste: Hazitek, Elkartek eta Cien.

Halaber, zenbait erakunde publikoren diru-laguntzak eska daitezke edo lizitazioetara aurkeztu. Lizitazio horien izapidetzea arintze aldera, Euskoiker Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan izena emanda dago.

Beste edozein izapidetze motarako, bidali dagokion informazio guztia zalantzarik gabe eta Fundazioaren bidez izapidetzeko aukerarik

dagoen edo ez jakinaraziko dizuegu ahalik eta lasterren.

### Sinadura elektronikoa

Gaur egun, eta administrazio-kudeaketa guztiak arintzeko eta errazteko, sinadura-prozesu guztiak ziurtagiri digitalaren bidez egiten ditugu, nahiz eta eskuz sinatzeko aukera dagoen beti, beharrezkoa bada.

Sinadura elektronikoari buruzko informazio gehiago gure webgunean.



## Fakturazioa eta ordainketak

Ondoren, fakturazioari, fakturen ordainketari, kobratzeei... buruzko informazio orokorra emango da.

### Fakturak igortzea eta kobratzea

Fakturak kontratuan edo eskaintzan ezarritako moduan igorriko zaizkio kanpoko erakundeari. Euskoikerren garrantzia berezia ematen diogu fakturak kobratzearen jarraipena egiteari. Proiektuaren/lanaren arduraduna kobratzearen bilakaeraren jakinaren gainean dugu uneoro.

### Nomina bidezko ordainketak

Faktura kobratutakoan, Euskoikerrek ikerlari nagusiari posta elektronikoko bidez jakinarazten dio diru-sarrerara, eta BEZ (aplikatzen den kasuetan) eta kudeaketa-gastuen % 15 kendu ostean zer zenbateko duen adierazten dio.

Era berean, formulario bat atxikitzen zaio. Behar bezala bete beharko du nomina bidez egin beharreko diru-sarreraren datuekin. Ordainketa horiek hilaren amaieran egiten dira beti. Horretarako, nomina bidez kobratuko duten ikertzaile guztiei gutun bat bidaltzen zaie posta elektronikoko bidez. Gutun horretan, besteak beste, zer zenbateko jasoko duten eta diru-sarrerara horri dagokion espedientearen erreferentzia adierazten dira. Gutuna dagokion Departamenduko Idazkaritzan eman beharko da hilabete bakoitzeko 10. eguna baino lehen, diru-sarrerara hori egoki egin dadin.

### Fakturen ordainketa

Fakturak ordaintzeko (autonomoak, hornitzaileak, etab.), derrigorrezkoa da faktura Euskoiker Fundazioaren izenean egotea eta, horrez gainera, eskertuko genizueke fakturan zer espedienteri dagokion aipatzea edo ikertzaile nagusiaren izena adieraztea.

Hauek dira gure datuak:

### **EUSKOIKER FUNDAZIOA**

Rafael Moreno Pichichi kalea, 3.  
Escuela de Ingeniería de Bilbao. II eraikina - 1.  
Solairua, P1133 lokala  
48013 - Bilbao (Bizkaia)  
CIF G48112155

Ikertzaile nagusiak aurretik ikus-onetsi (sinatu) gabeko fakturarik ez da ordainduko. Ikus-onesteak ordaintzeko baimena ematen du. Fakturak hornitzaileak bidaltzen baditu, jatorrizkoa helaraziko zaizu (posta arruntaren bidez edo posta elektronikoz, sinadura elektronikokoaren bidez onartzeko), ikus-onetsia izan dadin eta ordainketa nori egin behar zaion adieraz diezaguzun, ordainketa jada egina badago.

3.000,00 € (BEZ gabe) baino gehiagoko material inbentariagarriaren erosketak EHUri emango zaizkio eta bere inbentarioaren parte izango dira.

### Bidaiei eta dieten likidazioen ordainketa

Bidaiei eta kilometroen gastuen likidazioa kobratu behar bada, Excel agiri bat helaraziko zaizu. Posta arruntaren bidez beteta itzuli beharko diguzue, eta gastu zehatzei dagozkien egiaztagirien jatorrizko agiriak atxiki beharko dira. Fakturak atxikiz gero, Euskoikerren izenean egon beharko dute beti. Diru-sarrerara horiek adierazten zaigun bankuko kontuan egingo dira zuzenean.

Gaur egun, EHUn joan-etorrien dietetarako **0,29 €/km**-ko tarifa dago ezarrita. Hala ere, kontuan izan behar da ez dela gasolinari dagokion zenbatekoa ordainduko, kilometroen gastuak ordaintzen badira, eta alderantziz. Beste edozein mantenu-gastu (ostatua, otorduak eta abar) ordaintzeko, ticketa, egiaztagiria edo dagokion faktura aurkeztu beharko da.

### Ordainketak kolaboratzaileei

Kolaboratzaileei egin beharreko ordainketei dagokionez, hiru kolaboratzaile mota daude:

**Autonomoak:** Fundazioaren izenean igorri beharko dituzte fakturak. Oso kolaborazio zehatzak direnean salbu, derrigorrezkoa da Euskoikerren eta kolaboratzailearen arteko zerbitzuen errentamendu-kontratu bat gauzatzea, lankidetzari hasi baino lehen.

**Hezkuntza-lankidetzan ikasleak:** Derrigorrezkoa da hezkuntza-lankidetzako hitzarmen bat gauzatzea, ikasketei ordainketak egiteko (ikastetxe bakoitzak berariazko baldintzak izan ditzake):

**Graduko ikasleak:** bi baldintza hauek bete behar dituzte ezinbestean:

- ★ Lehen bi ikasturtean gaindituta izatea.
- ★ 180 kreditu izatea.

**Master ofizialetako ikasleak:** denek har dezakete parte, matrikularen lehen urtetik.

PCM/244/2022 ordenaren, martxoaren 30ekoaren arabera, hezkuntza-lankidetzako ikasle guztiei alta egingo zaie Gizarte Segurantzari eta kostu hau izango du:

- ★ 53,79 €/hilean, proiektuaren kargura.
- ★ 9,43 €/hilean, ikaslearen nominaren kargura.

Zenbateko horiek 2022. urteari dagozkio, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 2022ko martxoaren 31eko 77. aleko argitalpenaren arabera, eta urtero eguneratzen dira. Ikasleak jasoko duen zenbatekoari aplikagarria zaion PFEZ kendu beharko zaio.

**Laneko kontratuak:** Lan-kontratuaz Euskoiker Fundazioaren bidez (Kontsultatu kostuak).

**Doktoratu aurreko kontratuak:** Euskoiker Fundazioak hitzarmen bat sinatu du (2022/07/6) EHUrekin, doktoregaiak prestatzeko proiektuak garatzeko.

Akordio horri esker, Fundazioaren bidez izapidetutako proiektuetako kontratuak diruz finantzatu ahal izango dira.

Jarri gurekin harremanetan informazio gehiagorako.



# Kontaktua

Edozein kontsulta argitzeko deiak ongi etorriak dira. Zuek laguntzeko gaude.

Edozein **kontsulta** baduzue, gurekin harremanetan jar zaitezkete **07:30etik 15:00era** arte etenik gabe, **944 795 688** telefonora deituz edo posta elektroniko bidez.

## Kontratazio-saila

- ★ **Aitziber Conde:** [aitziber.conde@euskoiker.es](mailto:aitziber.conde@euskoiker.es)
- ★ **Marina Iturbe:** [marina.iturbe@euskoiker.es](mailto:marina.iturbe@euskoiker.es)

## Administrazio-saila

- ★ **Aintzane Onaindia:** [aintzane.onaindia@euskoiker.es](mailto:aintzane.onaindia@euskoiker.es)
- ★ **Laura Casas:** [laura.casas@euskoiker.es](mailto:laura.casas@euskoiker.es)

# +64

da Euskoikerren NPSa (*Net Promoter Score*). Erabiltzaileen % 70ek gomendatuko lukete zerbitzua; aldiz, gomendatuko ez luketenak % 6 dira.

